

# Oharkabeen igarotako aurrerapausoak

XX. mende hasieran burutu zen emakumeak euskal dantza tradizionaletik baztertze prozesu luzea. Galdutako espazioaren birkonkista hasita dago, baina asko dago egiteke. Gehiena. Nolanahi, genero-normalizazioranzko bidean urrats txiki baina esanguratsuak izan ditugu 2013an. Atzeranzkoren bat ere bai.

| UNAI BREA |

2005EAN, Eibarko Kezka taldeak Arrateko ezpata-dantza sortu zuen, herriko jaietan dantzatzeko ez ezik kanpora zihoazenean “eurena” zen zer-bait erakutsi ahal izateko. “Bistan da euskal dantza dela”, zioskun 2010ean Oier Araolaza Kezkako kide eta dantzaren sortzaileetakoak, “baina tradizioa da? Bai noski, garbi daukagu gurea tradizionala dela, berria izan arren”.

Sorkuntzak ez du erabateko asmakuntza esan nahi, ordea. Kezka aurrez existitzen ziren elementuez baliatu zen Arrateko ezpata-dantza sortzeko. Hori bai, taldeari askatasuna eman zion tradizioaren ikuspegi jakin baten zamarik gabe abiatzeak. Hala, XXI. mendeko Euskal Herrirako dantza sortu zuten; genero rolen arabera bereizketarik gabekoa, esan nahi baita.

Geroztik, Eibarko eredia zabaldu egin da, apal bada ere. Azken hamarkadan genero bereizketarik gabeko ezpata-dantzak sortu dira han-hemenka. Zailagoa zirudien zer-bait ere gertatu da: “betidaniko” dantza batzuetan, ibilbide luzeagoaren “bermea” dutenetan, andrazkoak berdintasunean parte hartzen hasi dira. Nabarmentzeko moduko adibide bi izan ziren iaz: Debako San Roke ezpata-dantzarena —emakumeek lehenengoz hartu zuten parte 1967tik—, eta Tolosako bordon-dantzarena. Bigarren horretan gizon eta emakumeak elkarrekin plazaratutako lehen aldian izan zen, eskura daukagun dokumentazioaren arabera behinik behin.



KEZKA (CC-BY-SA)

**Arrateko Amaren dantzak, Eibarren. Kezka taldeak sortu zituen 2005ean, eta gizon zein emakumeek inongo genero-bereizketarik gabe dantzatzen dituzte.**

Horrelako adibide positiboak “ez dira asko, izan gaitzen zintzoak”, dio Oier Araolazak. Alta, horietako bakoitzak balio kualitatibo handia dauka eibartarraren ustez: “Nahikoa da bakarra egotea, frogatzeko emakumeen parte hartze normalduak ez dakarrela inolako kalterik, ez tradizioaren hausturarik, ez kalitate galerarik”. Pernandoren egia hori gogorazi beharrak demostratzen du, bestalde, oraindik aurrerapauso asko gehitu beharko zaizkiela dagoeneko egindakoei.

Aipatutako adibideek eta antzeko beste batzuek —“arakatzen hasita, uste baino gehiago azaleratzen dira”— ez dute eragin handirik dantza taldeen errepertorioan. Debako San Roke dantza, konparazio baterako, nekez antzetzuko du Debakoa ez den talde batek. Nolanahi ere, Araolazak ez du zalantzarik



etorkizuneko joerak tokian tokiko taldeek egiten dutenaren arabera izango direla, “zilegitasun bideak irekitzen baitituzte”. Debako edo Tolosako dantzek, akaso, pisu txikia izango dute gainerako taldeen erabakietan, baina beste batzuen eragina oso agerikoa da: “Zuberoan neskek eta mutilek pertsonaiak elkarrekin trukatzeko badituzte, beste taldeek bide horri helduko diote poliki, batzuk zurrunagoak izan arren”.

### Beharrak zabaldutako ateak

Zuberoako maskaradetan emakumezkoek duten parte hartze normaldua —oraindik erabat burutu gabea, bestalde— premia baten asetzeari egozten zaio orobat: dantza ez desagertzekoa. Mutilik ezak zabaltu zuen berdintasunerako bidea, ez diskriminazioari oldartzeko grinak. Haatik, Oier Araolazak uste du interpretazio horrek ñabardura eskatzen duela: “Emakume talde baten jarrera aldarrikatzaile aktiboa izan zen Eskiulan, 1992an. Parte hartzaile guztiak emakumeak ziren maskarada egin zuten. Ez zegoen beharrik denak emakumeak izateko, aldarrikapen bat mahai gainean jartzeko egin zuten, baita izugarritzko eztabaida eragin ere. Horrek bide bat ireki zuen, agian behar soilak irekiko ez zukeen: maskaradetan edonork edozer egin dezakeela frogatzea. Behin hori lortuta, errazago sartzen dira aldaketak beharra egonez gero”.

Tradizioa ez galtzeak du lehentasuna, eta galtzeko arriskuak erraztu dezake andrazkoak aritzea “gizonen gauzetan”. Beste batzuetan, berriz, tradizioaren katea eteteko arriskurik ez dago, baina bai berdintasuna lortzeko apustu kontzienteak, eta horien ondorioz emakumeek zenbait espazio konkistatu —edo birkonkistatu— dituzte.

### Parekidetasun joera, apala momentuz

Kasu gehienetan, ordea, ez da halakorik gertatzen: luzaroan emakumeentzat itxita egon

### Mutil-dantzak Elizondon, Baztandarren Biltzarreko festan, gizonetako nahiz emakumezkoen parte hartzearekin.

diren esparruak itxita daude oraindik, eta ez da ezbaian jartzen hala behar duenik. “Sinetsi nahi dut [normaltasuneranzko] joera egon badagoela —dio Araolazak—, baina oraingo protagonismo nagusiko eremuetan gizonen segitzen dute nagusi, eta emakumeek, gehiago izan arren, jarraitzen dute hein handi batean apaingarriak izaten”. Araolazaren iritziz, gainera, tradizioaren zenbait molde hausteko ausardia duten proposamen ugari genero-estereotipo zurrunak errepikatzen dituzte.

Itzul gaitezen Debara. Han dantza taldeak gidatu du aldaketa, eta apenas sortu den aurkakotasunik herrian. “Komunikabideetan ez du oihartzun handirik izan, baina urrats txiki bezain garrantzitsua da Debakoa”, idatzi berri du dantzari eibartarrak Argiaren Euskal Kulturaren Urtekarian, dantzari buruzko atalaren aitzin-sola-sean. Kexu da Araolaza, Debakoa bezalakoak ia aipatu ez eta batik bat genero gatazka gordina azaltzen den lekuetara zuzentzen dugulako fokua hedabideok. Haren ustetan, “horrek eragin dezake gatazka horiek enkistatu eta urte gutxian bideratu litekeena gaiztotzea eta luze irautea”.

### Mutil-dantza parekidearen alde Baztanen

Araolazak leporatutako bizioa ezin utzirik, aipa dezagun 2013an, zalantza gabe, Baztan izan dela “gune beroa”. Bereziki sona handikoa izan zen irailean Elbeteko jaietan jazotakoa: Baztango alkate Garbiñe Elizegi plazara irten zenean mutil-dantzetan parte hartzera, txistuz eta irainez hartua izan zen. Elizegik berak esan zuen, handik egun gutxira *Berria*-ri emandako elkarrizketan, gertatutakoak ez zuela Baztan osoaren neurria ematen baina atzerapausoa zela, haraneko herri gehienetan “normalizaziorantz gindoazen honetan”.

Ekainean, Plazara Dantzara ekimena aurkeztu zuen baztandar talde batek, parte hartze parekidearen alde. Hein handi batean, beste talde baten sorrerari erantzun nahiak azkartu zuen lehendik zenbaitzuen gogoan zegoen ideia gauzatzea, ekimeneko kide Nora Salbotxek aitortu digunez: “Martxoan Baztango Mutildantzari Taldea sortu zen. Agiri batean esan zuten mutil-dantzak beti dantzatu diren eran dantzatzeko asmoz jaio zela taldea, hau da, emakumeen parte hartzerik gabe”.

Mendealdeko Pirinioetan zabalduta dauden dantza jauzien Baztango aldaera dira mutil-dantzak. Herriko festetan dantzatu ohi dira, eta parte hartzea irekia da, hau da,



ez dago dantza talde baten esku. “Baztandar ugarik uste du horiek jotzean emakumeek plazatik erretiratu beharko luketela, eta beren parte hartzea ikustera mugatu; beste asko, gero eta gehiago, ez gatoz horrekin bat”.

Salbotzek azpimarratu du Baztango herri gehienetan inolako arazorik gabe dantzaten dutela denek elkarrekin, baina normaltasuna erabatekoa izan arte Plazara Dantzara bezalako ekimen batek existitu beharko duela. Iaz

**lazko San Roke dantza Deban. Emakumezkoek parte hartu zuten, 1967tik lehen aldiz.**

Elbeten baizik ez ziren izan istiluak, baina Iruritan, liskarrak saihestearren, jai egitarautik kendu zituzten mutil-dantzak. “Ohitura mantentzen den gainerako plazetan mutil-dantza parekidea izan da”.

### Bartolo eta Maritxu

Izen horiek erabiltzen dituzte Aiko taldekoek, herriko jaietan egiten dituzten ikastaro-emanaldietan. Esan gabe doa dantza mistoetako rolez ari direla, esan gabe doanez normalean arrek Bartolorena egiten dutela eta emeek Maritxurena. Borondatezko rol aldaketak nekez ikusten dira, eta bikote-osatzearen aritmetikak arautik aldentzea eskatzen duenean, usuago da emakumeak ikustea “gizonarena” egiten alderantzizkoa baino.

Hala ere, plaza mailan gauzak normalduz doazela iritzi dio Oier Araolazak. “Sanferminetako larrain-dantzan, esaterako, desagertu egin da genero marka zurruna, eta oso arrunta da bi neska elkarrekin dantzan ikustea; ez da hain arrunta bi mutil ikustea, baina gertatzen denean inor ez da asaldatzen”. Beste errota bateko ura da dantza taldeek hautatu ohi duten eredua, alegia, genero estereotipoak oso agerikoak dituen eszena “ideala”. Eta heteroa, jakina. ■



## Kalean da otsaileko



# aizu!

- Baratza, arte eszenikoak lantzeko
- Aristerrazu, erromerian nekaezin
- Cimaden, galtzak bete lan
- Maite Gurrutxaga arin-arin
- AmiArte, artea lagun artean

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

[aizunet.org](http://aizunet.org)